



**EBAZPENA, 2019KO MAIATZAREN 15EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, 2019/2020 IKASTURTERAKO “HAMAIKA ESKU ETA EUSLE” PROGRAMETAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEETAN HAINBAT LANPOSTU —ZERBITZU-EGINKIZUNEN EDO, HALA BEHAR BALITZ, BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEN ERREGIMENEAN— BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxek hezkuntza plan zehatzak ezarri eta garatu ahal izateko egonkortasun gradu bat izan behar dute. Egonkortasun hori ezartzeko honako deialdi hau publikatzen da, ikastetxe eta plangintza zuzendaritzak eskatuta. Plan hauek hezkuntza helburuak hobeto betetzeko asmoa dute eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe batzuetan garatuko dira.

Hamaika Esku 2017-2020 programaren bigarren aldia Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan antolatzeari buruzko 2017ko irailaren 18ko hezkuntzako sailburuordearen ebazpenaren bosgarren puntuak, irakasleen egonkortasunak eta programaren inplikazioaren garrantzi handia azpimarratzen dute eta, halaber, aipatzen dute ikastetxe hauetarako berezko deialdien beharrak eta ikastetxeei lehentasuna ematea deialdietarako zein baliabide berezietarako.

Bertan honako hau aipatzen da:

“Programaren lehen aldian parte hartu duten eragile guztiek, eta ikastetxeetako zuzendaritzek batez ere, irakasleen egonkortasunak eta inplikazioak garrantzi handia dutela azpimarratzen dute.

Lehen aldian ere egin zen, deialdi espezifiko bidez, proiektuan parte hartu eta inplikatu nahi zuten irakasleek ikastetxetan jarraitzeko erraztasunak ematearen aldeko apustua.

Bigarren aldi honetan, ezaugarri horietako deialdiak egiten jarraituko da eta deialdi horietan hautagaiek planteatutako konpromisoak jasoko dira. Selektionatutako pertsonak jarraituko duten ikusteko, ikastetxean egin duten lanaren jarraipena egingo da eta memorian adierazitako konpromisoak zein mailatan bete diren hartuko da kontuan. horiek horrela, faktore horien baldintzapean egongo da pertsona horiek jarraitzea edo ez jarraitzea.

Gainera, betiere exijitutako gutxienezko helburuak betetzen badituzte, ikasleen hezkuntza-emaizak hobetzera bideratutako aparteko baliabideak ematen dituzten programa, deialdi edo proiektuetan emango zaie ikastetxeei lehentasuna.

Hezkuntza ikuskaritzak jarraipena egingo du eta baliabide horien eraginkortasun maila ebaluatuko du. ebaluazio horrek proiektu horien esleipena baldintzatuko du.”

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. honako hauetan arautzen da: uztailaren 6ko 6/1989 legeko 54. artikuluan (6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) eta uztailaren 6ko 185/2010 dekretuko 12. artikuluan (185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz Kanpoko Irakasleen Lan Baldintzak onartzen dituen Hitzarmena onartzen duena).

Lan-kontratua duten langileei dagokionez, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuari buruzko legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 83. artikuluan ezartzen duenez, lan-kontratudun langileak lekuz mugitu eta lanpostuak betetzerakoan, aplikatzeakoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa izango da oinarri, eta, horrelakorik ezean, karrerako funtzionarioak lekuz mugitzeko eta lanpostuak betetzeko sistema hartuko da aintzakotzat.

Horregatik, egokitzen da lan-kontratudun langileek lanpostuak betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea behin-behineko esleipenaren figuraz, zeina zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa baita.

Horren arabera, betiere hezkuntza sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

**EBAZTEN DUT:****Lehena.- Deialdiaren xedea.**

Deialdi honen xedea da I. eranskinean agertzen diren lanpostuak betetzea 2019/2020 ikasturterako.

- a) Funtzionario eta praktiketako funtzionarioen kasuan, zerbitzu-eginkizunean beteko dira lanpostuak.
- b) Lan-kontratudun langileen kasuan, behin-behineko esleipenaz beteko dira.

**Bigarrena.- Eskakizunak, bazterketak eta uko egiteak.**

- a) Karrerako funtzionarioa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, dagokion kidegoan, eskatutako lanpostuaren arabera.
- b) Aipatutako mailetako lan-kontratu finkoa duten irakasleek ere parte hartu ahal izango dute.
- c) Orobat parte hartu ahal izango dute praktiketako eta bitarteko funtzionarioek, baina lehentasuna izango dute karrerako funtzionarioek nahiz lan-kontratu finkoa duten langileek.
- d) Eskaera aurkeztzen denean, Hezkuntza sailaren menpeko ikastetxe publiko batean zerbitzu aktiboko egoeran, edo postuaren erreserba dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun gabetzea izan ezik.
- e) Era berean, parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez zerbitzu aktibora itzuliz, zerbitzu berezietakoek eta borondatezko eszedentzia egoeran daudenek, beti ere egoera horretan egoteko gutxieneko epea bete baldin badute.
- f) Ebazpen hau argitaratu den egunera bitarte, deialdi honetan deitutakoez, 2019/2020 ikasturterako, bestelako lanpostu baterako izendatua ez izana zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenaz.
- g) Lanpostu bakoitzeko gainontzeko betekizunak ebazpen honen eranskinetan daude jasota.
- h) Deialdi honetatik kanpo geratzen dira 2019/2020 ikasturterako IRALE programarako liberatuta egongo direnak.
- i) Aurreko ikasturteetan esleitutako zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena 2019/2020 ikasturterako luzatzeari uko egin dioten pertsonak, ezingo dute ukoaren xede den lanpostua aukeratu.
- j) Behin zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena esleituta, ezingo zaio hari uko egin, deialdi honen xede den ikasturtea bukatu arte.
- k) Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna eta espezialitatea egiaztatuta izan behar da (I.eranskinean).

**Hirugarrena.- Eskabideak formalizatzeko epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta eskabideak aurkezteko epea.**

- a) Eskaeraren Formalizazioa

Izangaiek beren eskabidea egin beharko dute Hezkuntza sailaren webgunean argitaratutako eredu ofizialean.

Eskabidea hezkuntza saileko langileak kudeatzeko zuzendariari bidali beharko zaio.

Eskabideak ondoko lekuetan aurkeztu ahalko dira:



- Hezkuntza sailaren lurralde-ordezkaritzetan.
- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan adierazitako erregistroetako edozeinetan.

b) Epea

Eskeraek aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 23an bukatuko da, egun hori barne. Eskaria lehentasun-irizpideei jarraituta ordenatuta egongo dira. Lanpostu bakoitza banan-banan eskatu beharko da, lanpostuaren destinoa zehaztuta.

c) Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideak ondokoarekin batera aurkeztu beharko dira:

- **Eskatutako betekizun espezifikoak:** Haiek egiaztatzeko dokumentazioa (kopia konpultsatua).

Administrazioaren eskura ez daudenak alegatu egin beharko dira, eta esandako ziurtagiri bidez aurkeztu.

- **Adierazitako merezimenduak:** Egiaztagiri ofizialak (originalak edo kopia konpultsatuak), I. eta II. eranskinetan zehaztutakoaren arabera.

Administrazioaren eskura daudenak alegatu egin beharko dira, eta gainerakoak esandako ziurtagiri bidez aurkeztu.

Eskabidearekin batera aurkeztu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, ezta dokumentazioan jaso arren behar bezala egiaztatuta ez direnak ere.

- **Memoria:** Hautagaiek bete beharreko funtzioei eta lanari buruzko memoria bat aurkeztu beharko dute. nahitaez III. eranskineko formatua erabili beharko da (gehienez ere 3 orri, alde bakarretik).

d) Eskabideen edo eskaeren kopurua: Soilik ikastetxe bateko lanpostuak eskatu daitezke eta ikastetxe horren barruan espezialitate eta hizkuntza eskakizun bera duten lanpostuak.

**Laugarrena.- Balorazio-baremoa.**

- a) Izangaien merezimenduak eta memoria deialdi honen eranskinean ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntuatuko dira. Ebazpen hau argitaratzeko datara bitarte gauzatu eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak soilik izango dira baloragarriak.
- b) Guztira 60 puntu lor daitezke gehienez.
- c) Memorian 10 puntu gutxienez lortzen ez dituztenak prozesutik kanpo geratuko dira.
- d) Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: Baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratuz eta II. Eranskinean duten hurrenkera kontuan hartuz.

**Bosgarrena.- Balorazio-prozesuaren faseak:**

- a) Egiaztatzea izangaiek betetzen dituztela haiek bete nahi dituzten lanpostuetan eskatzen diren betekizunak. egiaztapen hau dagokion lurralde ordezkaritzak burutu dezake balorazio batzordeak zehaztutako irizpideen arabera.
- b) Memoriaren balorazioa: Memoria baloratzeko batzorde tekniko bat eratuko da, ebaluatuko den eremu edo esparruan adituena, eta ondokoek osatuko dute:.



- Dagokion ikastetxeko zuzendaria.
  - Berritzeguneko aholkulari bat, hezkuntza berritzatzeko zuzendaritzak izendatua.
  - Hezkuntza-ikuskari bat, lurraldeko ikuskari buruak proposatua.
- c) Esperientziaren, prestakuntzaren, merezimendu akademikoen eta euskararen balorazioa. Hezkuntza saileko lurralde ordezkarietzako berrikuntza eta langileak kudeatzeko zerbitzuek egingo dute balorazio hori.
- d) Ondoren, fase ezberdinen balorazioak balorazio batzorde orokorraren esku jarriko dira.

#### **Seigarrena.- Balorazio batzordea.**

- a) Balorazio Batzordea sortuko da eta hauek izango dira kideak:
- Lehendakaria:
    - Dagokion hezkuntza lurralde ordezkarietzako ordezkaria, edo bere ordezkoa.
  - Batzordekideak:
    - Berritzeguneko aholkulari bat, hezkuntza berritzatzeko zuzendaritzak izendatua.
    - Hezkuntza-ikuskari bat, lurraldeko ikuskari buruak proposatua.
    - Eragindako ikastetxeetako bateko zuzendaria.
  - Idazkaria:
    - Dagokion hezkuntza lurralde ordezkarietzako langileak kudeatzeko burua.
- b) Adituak diren aholkulari teknikoak izan ahalko ditu Balorazio Batzordeak memoriak baloratzeko aipatutako batzordeak zehaztutako irizpideen arabera. Aholkulariok beren espezialitate teknikoak lantzerantz mugatuko dira, eta arlo horiei dagokienez soilik lan egingo dute Balorazio Batzordearekin.
- c) Era berean, sektorean ordezkari nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat izango da Balioespen Batzordean, hitzarekin baina botorik gabe.
- d) Deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta dagokion epean eta moduan aurkeztu diren eskariak balorazio batzordeak baloratuko ditu.

#### **Zazpigarrena.- Ebazpena.**

- a) Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.

Balorazio-prozesua egin ondoren, Balorazio Batzordearen Lehendakariak, Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dio deialdi honen ebazpenaren proposamena, azken honek deialdiaren Behin-behineko Ebazpena eman dezan. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangai bakoitzari emandako puntuazio osoak eta atalkoak ere azalduko dira, eranskinetako atal desberdinek zehaztutakoaren arabera.

Behin-behineko ebazpena hezkuntzako webgunean argitaratuko da.

Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

- b) Behin betiko ebazpena.

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren edo erreklamaziorik ez balego, langileak kudeatzeko zuzendariak jakitera emango du aukeratutako hautagaien behin betiko ebazpena. Bertan, hautagai bakoitzari emandako balorazioak azalduko dira, hautatutako eta baztertutako



pertsonen azken zerrenda emango da, eta hutsik gera zitezkeen lanpostuak ere azalduko dira. Hautagaiak lanpostuetan eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte —barnean hartuta balorazio-baremoan eskatutako gutxieneko puntuazioa—, deitutako lanpostuak ezingo dira hutsik geratu.

Behin-betiko ebazpena hezkuntzako webgunean argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio administrazio eta zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

#### **Zortzigarrena.- Izendapena eta luzapenak.**

- a) Aukeratutako izangaiei 2019/2020 ikasturtearen amaierara arte emango zaie lanpostua, betiere ikasturtean zehar titularra berriro lanean hasten ez bada.
- b) Zerbitzu-eginkizunak ematea, betiere, lanpostuak lekualdatze-lehiaketaren bidez ez betetzearen baldintzapean dago.
- c) Zerbitzu-eginkizunen esleipena edo behin-behineko esleipenak jaso dituztenek galdu egingo dituzte horiek, praktiketako funtzionario izendatzen badituzte eta ezin badute praktikak bete deialdi honen arabera esleitutako lanpostuan.
- d) Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboan egon beharrean beste administrazio-egoera batean egonez gero, zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena eskuratzeko lanera itzuli beharko du berehala, eta aldi berean esleituko zaio zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena. Ez badu hala egiten, eskubidea galduko du, eta hurrengo puntuazio handiena duen pertsona hautatuko da.
- e) Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie lanpostu horiek 2019/2020 ikasturtearen amaierara arte betetzeko.
- f) Praktiketako funtzionarioei dagokienez, zerbitzu-eginkizun bat emateko, karrerako funtzionario izan beharko dute 2019/2020 ikasturtean.
- g) Lan-kontratudun langileen kasuan, lanpostu horiek betetzeko behin-behineko esleipenaren ebazpena emango da, 2019/2020 ikasturtearen amaierara arte.
- h) Halaber, ordezkapenatarako hautagaien zerrendetan izena emanda dauden langileak edo bitarteko langileak aukeratuz gero, lanpostu horretan izendatuko dira 2019/2020 ikasturtearen amaierara arte.
- i) Aldi hori igaro ondoren, hezkuntza administrazioak egindako ebaluazioa positiboa bada, langileak kudeatzeko zuzendariak izendapena luzatu ahal izango du hurrengo ikasturteetarako, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz eta lekualdatze-lehiaketen bidez betetzen ez badira.

#### **Bederatzigarrena.- Ordezkoen zerrenda.**

- a) Gutxieneko puntuazioa atera arren lanposturik lortu ez dutenak berariazko poltsa batean sartuko dira, puntuazioaren araberrako zerrenda batean. Poltsa horren helburua hau izango da: Ebazpena eman ondoren eta 2019ko abenduaren 31ra arte hutsik gera litezkeen alor horretako lanpostuak betetzea.
- b) Aldi baterako ordezkapenatarako hezkuntza sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 19. artikuluan dioena hartuko da kontuan. Agindu horrek arautzen du eaeko unibertsitateaz aparteko herri-ikastetxeetako irakaspostuen aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda nola kudeatu.

**Hamargarrena.- Ordainsariak.**

Aukeratutako pertsonen zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenean betetako lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte.

**Hamaikagarrena.- Lan-baldintzak.**

- a) Hautatutakoek destinoko zentroetan ezarritako ordutegia eta egutegia bete beharko dute. Pertsona hauei aplikatuko zaie hezkuntza saileko irakasleen lan-baldintzen gaineko indarrean dagoen araudia.
- b) Hautatutakoek ezin izango dute parte hartu ordu-liberazioa behar duten euskalduntzeko ikastaro luzeetan. Halaber, ordu-liberazioa suposatzen duten bestelako ikastaroetan, parte hartu ahal izateko, dagozkion sailburuordetzaren berriazko baimena beharko da.

**Hamabigarrena.- Datu pertsonalen babesa.**

- a) Hezkuntza sailak jasotako datuak 3/2018 lege organikoan, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa eta 2/2004 legean, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, ezarritakoaren arabera tratatuko dira.
- b) Eskatzaileak ados daude beren datu pertsonalak deialdi honetan ezarritako xederako eta bertan aipatzen den bezala erabiltzearekin, bai eta hezkuntza saileko webgunean ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus)) eta hezkuntza ordezkarietzako iragarki-tauletan argitaratzearekin ere, baina deialdiaren berezko izapideetarako soilik.

**Hamahirugarrena.- Ordezko modura aplikatzeko araudia.**

Prozedura gaitan ebazpen honetan arautu gabeko kasuetan, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legean ezarritakoa aplikatuko da.

**ERREKURTSOAK**

Bide administratiboa bukatzen ez duen ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio hezkuntza saileko administrazio eta zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, beti ere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 legearen 121. artikuluan eta hurrengoek 112.1 artikulua ereko xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 15ean

**JON AGIRRE HUERGA**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**



## I. ERANSKINA

## LANPOSTUAK. HAMAIKA ESKU.

ARABA			
IKASTETXEA	ETAPA	ESPEZIALITATEA	HIZK.ESK.
CEIP ELCIEGO	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	
CEIP ELCIEGO	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP BASTIDA	LEHEN HEZKUNTZA	HEZKUNTZA FISIKOA	PL2
CEIP VÍCTOR TAPIA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	KONTSULTOREA	PL2
CEIP RAMIRO DE MAEZTU HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CEIP RAMIRO DE MAEZTU HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CEIP RAMIRO DE MAEZTU HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP RAMIRO DE MAEZTU HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP GOBEA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP GOBEA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	INGELESA	PL2
CEIP GOBEA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	MUSIKA	PL2
CEIP LANDAZURI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP LANDAZURI	LEHEN HEZKUNTZA	CEIP ELCIEGO	HAUR HEZKUNTZA
CEIP LANDAZURI	LEHEN HEZKUNTZA	HEZKUNTZA FISIKOA	PL2
CEIP MIGUEL CERVANTES	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MIGUEL CERVANTES	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MIGUEL CERVANTES	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL2
CEIP PADRE ORBISO	LEHEN HEZKUNTZA	KONTSULTOREA	PL2
CEIP PADRE ORBISO	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP RAMÓN BAJO HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CEIP SAN MARTIN	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
IES FEDERICO BARAIBAR BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	MATEMATIKA	PL1
IES FEDERICO BARAIBAR BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	KURRIKULUM ANIZTASUNA ARLO SOZIO-LINGUISTIKOAN	PL2+INGELESA
IES FEDERICO BARAIBAR BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	EUSKERA	PL2
IES FRANCISCO VITORIA	BIGARREN HEZKUNTZA	INGELESA	PL2



IES FRANCISCO VITORIA	BIGARREN HEZKUNTZA	TEKNOLOGIA	PL1
IES FRANCISCO VITORIA	BIGARREN HEZKUNTZA	GAZTELANIA	PL2
CEIP ABETXUKO	LEHEN HEZKUNTZA	KONSULTOREA	L2
CEIP ABETXUKO	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP ABETXUKO	LEHEN HEZKUNTZA	HEZKUNTZA FISIKOA	PL2
CEIP ABETXUKO	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP JUDIZMENDI	LEHEN HEZKUNTZA	HEZKUNTZA FISIKOA	PL1
CEIP JUDIZMENDI	LEHEN HEZKUNTZA	KONTSULTOREA	PL1
IES BADAIA BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	LATIN	PL2
CEIP ARANBIZKARRA	LEHEN HEZKUNTZA	MUSIKA	PL2
IES SAMANIEGO_LAGUARDIA	BIGARREN HEZKUNTZA	MATEMATIKA ETA TEKNOLOGIA	PL2+ B2 INGELESA
CPI SANSOMENDI IPI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CPI SANSOMENDI IPI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CPI SANSOMENDI IPI	BIGARREN HEZKUNTZA	ORIENTAZIOA	PL2
CPI MENDIALDEA	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL2
CPI MENDIALDEA	LEHEN HEZKUNTZA	KONTSULTOREA	PL2
CPI MENDIALDEA	BIGARREN HEZKUNTZA	MATEMATIKA ETA MUSIKA	PL2
CPI SAMANIEGO IPI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CPI SAMANIEGO IPI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CPI SAMANIEGO IPI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CPI SAMANIEGO IPI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CPI SAMANIEGO IPI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA HIZKUNTZA-ERREFORTZUKO IRAKASLEA-EUSLE	PL2
CEIP SAN IGNACIO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP SAN IGNACIO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2





<b>GIPUZKOA</b>			
<b>CENTRO EDUCATIVO</b>	<b>ETAPA</b>	<b>ESPEZIALITATEA</b>	<b>HIZK.ESK.</b>
CEIP URKIZU HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA HEZKUNTZA-ERREFORTZUKO IRAKASLEA-EUSLE	PL2
CEIP URKIZU HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA HEZKUNTZA-ERREFORTZUKO IRAKASLEA-EUSLE	PL2
IES LEIZARAN BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	BIOLOGIA-GEOLOGIA	PL2
CEIP ONDARRETA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
IES HIRUBIDE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	TEKNOLOGIA INGELESES	PL2
IES HIRUBIDE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	FISIKA ETA KIMIKA	PL2
IES EIBAR BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	HIZKUNTZA-ERREFORTZUKO IRAKASLEA-EUSLE	PL2
IES EIBAR BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	HIZKUNTZA-ERREFORTZUKO IRAKASLEA-EUSLE-	PL2



<b>BIZKAIA</b>			
<b>CENTRO EDUCATIVO</b>	<b>ETAPA</b>	<b>ESPEZIALITATEA</b>	<b>HIZK.ESK.</b>
CEIP JUAN RAMÓN JIMÉNEZ HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA + INGELESA	PL2
CEIP JUAN RAMÓN JIMÉNEZ HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP LARREA	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CEIP LARREA	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MUNOA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA+ TEKNOLOGIA BERRIEN ARDURADUNA	PL2
CEIP MUNOA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA + INGELESA	PL2
CEIP MUNOA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP NTRA. SRA. DEL PILAR HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP NTRA. SRA. DEL PILAR HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	INGELESA	PL2
CEIP ZUAZO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP ZUAZO HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
IES ANTONIO TRUEBA BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	GAZTELANIA	PL1
CEIP ARTATSE HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	KONTSULTOREA	PL2
CEIP ARTATSE HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP ARTATSE HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA GELA EGONKORRERAKO	PL2
CEIP ARTATSE HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP BASURTO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP BASURTO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP BASURTO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP BASURTO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP CERVANTES HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP DEUSTO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP DEUSTO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP ELEJABARRI HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CEIP ELEJABARRI HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CEIP ELEJABARRI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2



CEIP ELEJABARRI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP ELEJABARRI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA ETA KONTSULTOREA	PL2
CEIP ELEJABARRI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	MUSIKA ETA HEZIKETA FISIKOA	PL2
CEIP ING. JOSE ORBEGOZO GOROSTIDI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MINA DEL MORRO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL2
CEIP MINA DEL MORRO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MINA DEL MORRO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MINA DEL MORRO HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CEIP PÍO BAROJA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP TOMÁS CAMACHO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP TOMÁS CAMACHO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	HEZIKETA FISIKOA	PL2
CEIP TOMÁS CAMACHO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	HIZKUNTZA-ERREFORTZUKO IRAKASLEA-EUSLE	PL2
CEIP TOMÁS CAMACHO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL2
CEIP ZORROTZA FRAY JUAN HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP ZORROTZA FRAY JUAN HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP ZORROTZA FRAY JUAN HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
IES MARTÍN DE BERTENDONA BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	FILOSOFIA ETA ETIKA	PL2
IES MARTÍN DE BERTENDONA BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	GEOGRAFIA HISTORIA	PL2
IES TXURDINAGA-BEHEKOA	BIGARREN HEZKUNTZA	BIOLOGIA-GEOLOGIA	PL2
IES REKALDEBERRI BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	MATEMATIKA	PL2
IES REKALDEBERRI BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	MATEMATIKA	PL2
IES REKALDEBERRI BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	INGELES	PL2
IES REKALDEBERRI BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	GIZARTE ZIENTZIAK	PL2
IES REKALDEBERRI BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	MUSIKA	PL2
CEIP CONCHA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	INGELES	PL2
CEIP CONCHA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2



CEIP CONCHA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP LAMIAKO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP LAMIAKO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP LA ARBOLEDA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	INGELES	PL2
CEIP LA ARBOLEDA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP KUETO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL2
CEIP KUETO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP KUETO HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP KUETO HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
CEIP VISTA ALEGRE HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	0.5 PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA + 0.5 KONTSULTOREA	PL2
CEIP VISTA ALEGRE HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
IES ÁNGELA FIGUERA BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	TEKNOLOGIA	PL2
CEIP ZAZPILANDA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP ZAZPILANDA HLHI	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	PL2
IES ZORROZA BHI	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL2
IES ZORROZA BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	KURRIKULUM ANIZTASUNA ARLO SOZIO-LINGUISTIKOAN	PL2
IES ZORROZA BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	GEOGRAFIA E HISTORIA	PL2
IES ZORROZA BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	EUSKERA ETA LITERATURA	PL2
CEIP MUJIKI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MUJIKI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MUJIKI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL2
CEIP MUJIKI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CEIP MUJIKI HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	PL2
CPI SOLOARTE IPI	BIGARREN HEZKUNTZA	MATEMATIKA	PL2
CEIP OTXARKOAGA HLHI	LEHEN HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA-EUSKERA	PL2
IES ARTABE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	GAZTELANIA	PL1 DATA GABE
IES ARTABE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	INGLÉS	PL2



IES ARTABE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL2
IES ARTABE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	FISIKA KIMIKA	PL1
IES ARTABE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA	PL1
IES ARTABE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	HEZKUNTZA FISIKOA	PL2
IES ARTABE BHI	BIGARREN HEZKUNTZA	EUSKERA ETA LITERATURA	PL2

**II. ERANSKINA****BAREMAZIO-IRIZPIDEAK****GUZTIRA, GEHIENEZ: 60 puntu.****1.- Eskatzen den ikastetxean bertan lan egin izana: 15 puntu, gehienez ere.****0,5 puntu** hilabete bakoitzeko.

Izendapen edo kontratuaren eta kargu-uztearen fotokopia konpultsatuz, edo zerbitzu-orriaz frogatuko da.

**2.- Beste ikastetxetan lan egin izana: 15 puntu, gehienez ere.**

- a) EAEko, Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,20 puntu.

Antzinasuna frogatuko da izendapen edo kontratuaren eta kargu-uztearen fotokopia konpultsatuz, edo zerbitzu-orriaz. Europar Batasuneko estatu kideen ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak frogatzeko beharrezkoa izango da, gainera, zentroa publikoa dela eta emandako irakasgaiak arautuak direla ziurtatuko duen hezkuntza-administrazioaren dokumentu bat —zinpeko itzulpenaz— aurkeztea.

- b) Administrazioaren baimena duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxe pribatuetan eta aurreko a) puntuan adierazitakoez bestelako erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,066 puntu.

Antzinasuna frogatuko da zentroaren zuzendaritzak emandako ziurtagiri baten bidez, non zerbitzuen iraupena jasoko den, eta ikuskaritzaren oniritziak, edo, bestela, kontratuaren fotokopia konpultsatuz eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiriaz, non zentroaren izena eta altako aldiak agertuko diren.

**3.- Prestakuntza: 4 puntu, gehienez ere.**

Kontuan hartuko dira ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatuak, Ikastaroetan eta/edo prestakuntza eta hezkuntza-berriztapeneko proiektuetan parte hartu izana ziurtatzen dutenak, gizarte mailan bazterturik dauden edo eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleei laguntza emateari dagokionez. Ordu-kopurua adierazita ez duten egiaztagirak ez dira baloratuko.

- Emandako prestakuntza: 0,20 puntu, 10 orduko.
- Jasotako prestakuntza:
  - 10-30 ordutako ikastaroak: 0,20 puntu
  - 31-50 ordutako ikastaroak: 0,40 puntu
- Hezkuntza-berriztapeneko proiektuetan parte hartzen emandako ikasturte bakoitzeko: 0,30 puntu.

**4.- Merezimendu akademikoak: 4 puntu, gehienez ere.**

Lanpostuan jarduteko eskatzen denari erantsi zaion titulu bakoitzeko:

- Diplomaturak: puntu 1.
- Lizentziaturak, Graduak eta baliokideak: 1,50 puntu.



- Master Titulu ofiziala: 1,50 puntu.
- Doktoretza: 1,50 puntu.

Tituluaren fotokopia konpultsatuaren bidez egiaztatuko da.

**5.- Euskara,betebeharra ez den kasuetan: 2 puntu, gehienez ere.**

- 1 HE eta baliokideak: puntu 1.
- 2 HE eta baliokideak: 2 puntu.

**6.- Proiektuaren memoria: 20 puntu, gehienez ere.**

Hautagaiek gehienez hiru orriko memoria bat idatzi beharko dute, alde bakarretik.

Memorian 10 puntu gutxienez lortu behar da. Memoriaren edukia III. Eranskinean dago zehaztuta.

**Memoriak baloratzeko irizpideak:**

- Arlo orokorrak:
  - Ikasi eta irakasteko eta bizikidetzako proiektuak hobetu eta aberastea.
  - Curriculuma kultura-artekotasunean aberastea.
  - Familiakoen parte hartzea.
  - Hizkuntzen ikaskuntza eta euskalduntzea hobetzea.
- Zehatzak:
  - Programaren helburuen ezagutza gradua.
  - Eskatzaileak bere lanpostutik gehitu dezakeen balorea, ikastetxean hobetzeko helburuak lortzen laguntzeko. Konpromisu maila.



## III. ERANSKINA

**PROIEKTUARI BURUZKO MEMORIA***(GEHIENEZ, 3 ORRI ALDE BAKARRETIK)*

EGILEA:

PROIEKTUA ZER LANPOSTURI BURUZKOA DEN:

1. SARRERA: Deialdian parte hartzeko eskatzaileak dituen arrazoiak.
2. AURREKARIAK: Ikastetxearen eta garatzeko lanpostuaren ezaugarriak.
3. HELBURUAK: Lanpostu horretatik ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko eta ikasleen hezkuntza arreta hobetzeko lagunduko duten helburuen planteamenduak.
4. LANERAKO PLANA ETA KONPROMISUAK.
5. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA.
6. BIBLIOGRAFIA: aurreko puntuekin lotuta.